

Gure buruez gainetik  
joan zaten uholdea,  
behar bada zuclarik  
gu hilzeko moldea.

Gure fabore guzia  
Jaunaren izenean;  
zeru-lurren Egilleaz  
orhoitzen naizenean".

d) *Bezperak*. Bost salmu dauzkate: 109'garrena, "Dixit Dominus Domino meo"; 112'garrena, "Laudate pueri"; 121'garrena, "Laetatus sum"; 126'garrena, "Nisi Dominus aedificaverit", eta 147'garrena, "Lauda Jerusalem"; kapitula, "Ave maris stella", goratzarea, "Magnificat" eta otoitza.

Ona ikusburu bezela 112'garren salmuaren lau ahapaldi:

"Haurrak lauda ezazue  
gure Jainko Jauna!  
Lauda bihotz onez beti,  
Jainko hunan izena.

Emanik koplaburuko,  
orai eta sekulan;  
lauda bedi gure Jauna,  
sainduen sandagaillan.

Iguzkia ilkitzetik  
etzite mugaraino;  
izen hora handi bedi,  
lauda bedi oraino.

Jaun guztien gorena da,  
gure handi Jainkoa;  
loria bat hunek badu,  
zeruez gaineakoa".

Ederki zaintzen du azken oskidegoa. Neurkeran, orraitio, badu emen oker pitiña, au du, "Gure Jainko Jauna" ahapaldian ez du diptongorik egi-ten, zazpi silabako bertsoari eustearren; alere, -ai ra -au diptongoak dira.

e) *Konpletak*. Iru salmuk osatzen dute illuntzeko otoitza. Onela: 128'garrena, "Saepe expugnaverunt"; 129'garrena, "De profundis", eta 130'garrena, "Domine, non est exaltatus"; kapitula, Simeon'en kantika, otoitza ta amaitzeke. Andre Mariaren azken antifona, aldi bakotzari dago-kiona.

Irakur apaltasunezko itxaropenez beteriko zati au, 130'garren salmuko leenengo lau ahapaldietatik artuta:

"Jauna, nihoiz ez naiz hazi  
bihotz gorapenetan,  
nihoiz ez ditut altxatu  
begiak urgulutan,

Aitzitik begiratu dut  
ahal humiltasuna;  
ene ariman barrena,  
datorren ontasuna.

Ez naiz ere gauza eder  
handietan ibili,  
ez dut miragarriean  
gogorik erabili.

Ditiko haurraren legez,  
arimor bazkatzeko;  
eta behar naizen gauzen,  
zurekin azkartzeke".

Ikusi duzunet, auxe da Andre Mariaren "Ofizioa". K. Harizmendi'k orduko arima Jainkozaleei, bazka guri bezela, euskera atseginean emana. Zuri ere on-egin daizula bazka onen gozoak.